

EUROPAREN MUGIKORTASUN ASTEA, 2023

ALTXORRAREN BILA: HERRIA OINEZ EZAGUTZEN

Antolatzailea: Hondarribiko Udala

Kale Nagusia 20, 20280 Hondarribia

1- GAIA:

Hondarribian oinez mugitzeko segurtasun-neurriak eta portaera seguruak identifikatuko ditugu pista-joko baten bidez.

2- HELBURUA

Haurrak bidearen erabiltzaileak diren heinean, arriskuak uneoro daudela eta oinezkoen segurtasun-neurriak identifikatu behar dituztela konturatzea nahi dugu.

Ekintza honen bidez, haurrak hirietan modu seguruan mugitzeak duen garrantzia nabarmendu nahi da, hiria oinez, espazio publikoa eta aisialdirako eta jolaserako tokiak gozaten dituzten bitartean.

3- NOIZ ETA NON

NOIZ: **Irailaren 18an eta 20an, 17:30-18:30** (ordubeteko jarduera)

NON: **Martxoak 8 plazan** (Correos)

4- PARTE HARTZEA

Hondarribiko **9-12 urte** bitarteko hurrek (LH 4-5-6) parte hartu dezakete.

Ekintzan parte hartu ahal izateko, Udalaren webgunean **izena eman** beharko dute (www.hondarribia.eus), 2023ko **irailaren 11tik 14ra** bitartean.

Ez da onartuko epez kanpoko izen ematerik.

ZOZKETA:

Parte hartzeko eskabideek jardueraren edukiera gainditzen badute, plazak zozketa bidez esleituko dira. Jardueraren edukiera 12 pertsonetara da egun bakoitzeko.

Plazen esleipendunei email bat bidaliko zaie izen-ematean emandako helbide elektronikora, eta 24 orduetan erantzunik jaso ezean, telefonoz deituko zaie baieztatzeko.

5- JARDUERAN PARTE HARTZEA ONARTZEA

Parte-hartzea onartzeko epea 24 ordukoa izango da, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita.

Erakundea ezin bada parte-hartzaileekin harremanetan jarri datuetan akatsak daudelako, komunikazioari erantzuten ez diotelako, telefonoa hartzen ez dutelako, edo parte hartzea onartzen ez dutelako, erakunde antolatzailea zerrendako hurrengo pertsonarekin jarriko da harremanetan.

6- GARAPENA

Pista-jokoa egiteko ibilbide bat diseinatu da. Pista batzuk jarraituz, haurrek proba batzuk gainditu beharko dituzte.

Talde txikiak egingo dira (2-3 partaidekoak) pistak eta frogak gainditzeko, baina denak batera joango dira pertsona heldu batekin.

Jolasa Martxoak 8ko plazan hasi eta bukatuko da.

7- ERANTZUKIZUNA

Erakunde antolatzaileak ez du erantzukizunik izango halaberrez ekintza honen exekuzioaren ondorioz izandako gorabeheretan.

8- DATUEN BABESA

Kasua bada, jarduera honetan erabili daitezkeen datu pertsonalak bakarrik jardueraren garapenerako erabiliko dira, eta ezin izango dira fitxategi batean gorde edo bestelako helburuetarako erabili.

Edozein kasutan, pertsonak erabili ahal izango dituzte haien datuen eskuratzeko, aldatzeko, baliogabetzeko eta aurkaratzeko eskubideak erakunde antolatzaileari goian aipatutako helbidera zuzendutako eskabide idatziaren bidez.

Erabiltzaileak onartu egiten du eta adostasuna ematen du bere datu pertsonalak argitaratzeko eta hedatzeko (izen-abizenak, ikasmaila) jardueraren parte-hartzaileak badira.

9- LEGERIA ETA ESKUMENA

Oinarri hauek arautzen dira espainiar legearen arabera -aldeak beharrezko jurisdikzioaren mende jartzen dira indarrean dagoen araudiaren arabera.

10- ESKURAGARRITASUNA

Oinarri hauek www.hondarribia.eus-en daude eskuragarri.

11- IRUDIEN ERABILPENA

Egindako argazki- eta bideo-irudiak Hondarribiko Udalaren esku geldituko dira, eta mugikortasun jasangarriaren sustapenerako udalak dituen komunikazio-kanaletan erabili ahal izango ditu. Beti ere, irabazi asmorik gabe.

Era berean, jakinarazten da irudiak hartzea eta zabaltzea bat etorriko direla Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta lege hori garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuarekin.

12- ONARPENA

Jarduera honetan parte hartzeak oinarri arautzaile hauek ezinbestean onartzea dakar, eta gerta daitekeen edozein ezustekoren aurrean, antolakuntzak erabakiko du, eta ezin izango da erabaki horren aurka apelaziorik aurkeztu.